

Marcelino Vergara (Vergara I) "Etxalarko mutila"

Marcelino Vergara Larralde (Vergara I), Etxalarko mutila bezala ezaguna pilota munduan (Goiti-zinea Aitona bezala ezaguna zen pilotaren kronistak jarri zion), 1943ko maiatzaren 16an jaio zen Etxalarko Anduetzeta auzoko Etxebertzea etxean eta Donostian hil zen 2010ko urriaren 10ean 67 urte zituela.

Pilota munduan ibilbide luzea izan zuen, denetara 19 urte egin zituen profesional moduan. Arabako hiriburuko frontoian egin zuen debuta, 1962ko azaroaren 3an (Etxaberekin batera jokatu zuen eta 22-12 irabazi zieten Arkaia eta Del Vali-i) eta azkeneko partida Tolosako Beotibar frontoian jokatu zuen 1981 maiatzaren 16an, 38 urte zituela. Azkan partida hau ere Etxalartarraren alde atera zen. Pilotari (aurrelaria) dotorea, ukitu bereziko eta erremate onekoa zen. Agian kolpe pixka bat izan zitzaion aurrerago ailegatzeko.

Afizionatu mailan Marcelino Vergara goiz nabarmentzen hasi zen. Espainiako txapelduna izan zen eta munduko txapelduna Iruñako mundialean. Arrakasta honen ondorioz, profesional mailara pasa zen Eskulari enpresaren eskutik. Honek, gertaera gogoangarri batzuk eragin zituen, Marcelino izan baizen txapela jarri zuen lehen nafarra, 2. mailako txapelketako irabazle atera baitzen 1965. urtean, 22-17 Anduezari irabazi ondoren. Aldi beren lehen mailako buruz buruko txapelketan aritu zen lehen pilotari nafarra izan zen ere. Lehen mailako txapelketan 9 aldiz aurkeztu zen, eta final-aurretara ailegatzea izan zen bere lorpenik handiena. Hiru urte segidan ailegatzea lortu zuen 1971, 1972, 1973. Garai haietan bere aurkaririk handienak Lajos, Ignacio Retegi eta Tapia I izan ziren. Esku pilotako bertze pilotari handien kontra ere jokatu zen: Ogueta, Barberito I, Arriaran III, los Ariño, Echave X, Azkarate, Atano X, Tapia II eta garai hartako mito guztien aurka. Hala ere Ignacio Retegi ez zuen berarekin topo egin «enpresa desberdinetan baikin», baina bere ezaugarrien erreferentziak zituen. «Ezagutu dudan pilotaririk konpletona da». Jose Mari Palacios Ogueta berak ere bere lagunean artean errandakoak «Marcelino izan da nire ahulguneak hobekien bilatzen jakin izan duen aurkaria». Arabako pilotariarekin izandako dueluak oso ikusgarriak izan ziren.

1983ko uztailaren 13an Iruñeko Labrit frontoian eskainitako omenaldiaren kronika.

<http://www.pelota-mano-remonte.com/wordpress/?p=2069>

Elkarrizketa DVn: 2006.urtean Atano III frontoian, Juan Martinez de Irujoren material aukeraketa:

<http://www.diariovasco.com/pg060603/prensa/noticias/Deportes/200606/03/DVA-DEP-396.html>